

DEKRETUA

0386/2023

Udalerriko merkataritzan euskarazko webguneak, irudi korporatiboa eta errotuluak instalatzeko dirulaguntzen 2023ko deialdia onartzeko agindua eman du Euskara eta Kultura arloko zinegotzi delegatuak.

AURREKARIAK

LEHENA.- Udal kontu-hartzailearen izapidean, dirulaguntza deialdi honetarako aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela adierazten da (RC 220230000112 - Esp. zk: 10EUSK-2023/0007).

BIGARRENA.- Dirulaguntzak arautzeko onartu duen araudi berriarekin Udalak marko juridikoa eta aintzat hartuko dituen irizpideak ezarri nahi izan ditu.

ONARRI JURIDIKOAK

LEHENA.- Abenduaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, 38/2003 Legearen gaineko Araudia onartzen duena.

BIGARRENA.- Erandioko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza orokorra, behin betiko onarpena 2021eko otsailaren 10an argitaratua, 27 zk.dun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

HIRUGARRENA. Honako lege-xedapen hauetan ezarritakoa: 11/99 Legea, apirilaren 21ekoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea aldarazten duena, 781/86 Errege Dekretua, apirilaren 18koa eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (Artikuluak: 114.1, 123 eta 124).

HONAKO HAU XEDATZEN DUT

LEHENA.- Epe bakarreko lehiaketa bidezko prozedurari jarraituz, Udalerriko merkataritzan euskarazko webguneak, irudi korporatiboa eta errotuluak instalatzeko dirulaguntzen 2023ko deialdia onartzea.

BIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN GAIA

1. Dirulaguntza honen gaia da Erandioko merkataritza finantzatzea euskarazko errotuluak, webguneak eta irudi korporatiboak instalatzeko edo euskaraz eta gaztelaniaz instalatzeko, baina euskarari lehentasuna emanez.

Horretarako, Erandioko Udalak hizkuntza ofizialak erabiltzeko ezarri eta onetsitako hizkuntz irizpideei jarraituko zaie.

Eskabideei uko egingo zaie, baldin eta testua oker idatzita badago, akats gramatikalak baditu eta norberaren izena, deitura edo izen-deiturak agertzen badira edo establezimendu, lokal edo jardueraren izentzat har daitekeen hitz edo adierazpidea.

HIRUGARRENA.- ERAKUNDE ONURADUNAK

1. Pertsona edo erakunde onuradunak izateko, ordenantza honetan ezarritako beharkizunak betetzeaz gain, honakoak ere bete behar izango dira:

- Euskarazko edo euskara eta gaztelaniazko errotuluak (euskarari lehentasuna emanez) instalatzeko dirulaguntza eskuratu ahal izango dute egoitza Erandion duten merkataritza eta ostalaritza establezimenduetako arduradunek.

- Euskarazko irudi korporatiboa edo euskara eta gaztelaniazko irudi korporatiboa (euskarari lehentasuna emanez) instalatzeko dirulaguntza eskuratu ahal izango dute egoitza Erandion duten merkataritza eta ostalaritza establezimenduetako arduradunek.

- Euskarazko webgunea edo euskara eta gaztelaniazkoa (euskarari lehentasuna emanez) abian jartzeko dirulaguntza eskuratu ahal izango dute udalerriko elkarte edo erakundeek.

2. Aurreko ekitaldian webgunea egiteko dirulaguntza jaso zuten erakundeek ere jaso ahal izango dituzte dagokion urteko dirulaguntzak.

LAUGARRENA.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA

Erandioko Udalaren Aurrekontuko ondorengo diru partidetan erabilgarri diren kredituei egotziko zaizkie dirulaguntza hauek:

- 36-3352-48112 diru partida.- Udalaren aurrekontuetatik 2.500,00 €, gehienez ere.

Aurrekontuetako kredituetan soberakinik izanez gero, hau da, baldin eta hasieran aurreikusitako gastua baino txikiagoa bada dirulaguntza eskarien zenbatekoa, kreditu soberakinen transferentzia egitea erabaki daiteke eta gehienezko beste zenbatekoak handitu, beste deialdi bat egin behar izan barik. Era berean, aurrekontuko kredituen zenbatekoa handitu egin daiteke kredituak gehitze, gaitze edo sartzearen ondorioz. Arestian ezarritako hori gauzatzeko ezinbesteko baldintza izango da aurrekontuetan kreditu nahikoa egotea eta, bidezkoa izanez gero, dirulaguntza emateko erabakia hartu aurretik aurrekontuari dagokion kreditu aldaketa onartzea.

Edozelan ere, eskaera guztiei erantzuteko aurreikusitako diru partida nahiko ez balitz, eskatzaile guztien artean hainbanaketa egingo da.

BOSGARRENA.- ESKABIDEAK

Dirulaguntza eskaera egiteko honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskaera-orria, behar bezala beteta.
- Kanpoaldeko errotuluaren testua eta argazkia, irudi korporatiboaren testu eta argazkia edo webgunearen testua. Testuak zuzen idatzi egon behar du. Horretarako, interesdunak laguntza teknikoa eskatu ahal izango dio udaleko euskara zerbitzuari.
- Errotuluaren gastuaren faktura.
- Establezimenduak Irekitzeagatik Tasa edo irekitzeko lizentziaren ordainagiria.

SEIGARRENA.- DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO EPEAK ETA LEKUAK

Beharrezko dokumentazioa erantsi eta gero, dirulaguntza eskabidea aurkeztu ahal izango da 2023ko otsailaren 4ko 14:00ak arte.

Eskabidea Erandioko Udaleko Alkateari zuzendu behar zaio. Erandioko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan jasotakoaren arabera.

Eskaera-orriko baldintza guztiak ez badaude behar bezala beteta, edo ez badute beharrezkoa den dokumentazioa erantsi, erakunde eskatzaileari eskaera zuzendu edo behar diren agiriak aurkez ditzan eskatuko zaio, eta hamar eguneko epea izango du horiek ekartzeko. Horrela egin ezean, eskaera atzera botako da, eta eskaera horren inguruko erabakia emango da beren-beregi, bai eta jakinarazi ere.

Enpresa edo erakunde interesatuek eskaera aurkezteak berekin dakar oinarriak oso-osorik onartzea.

ZAIZPIGARRENA.- DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

1. Errotulazioa

- a) Euskara hutseko errotulazioa: diruz lagunduko da justifikatutakoaren %50 (ez da 500 eurotik gorakoa izango).
- b) Euskara eta gaztelaniazko errotulazioa: Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %25 (ez da 300 eurotik gorakoa izango).

2. Irudi korporatiboa

- a) Euskara hutseko irudi korporatiboa: Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %50 (ez da 500 eurotik gorakoa izango).
- b) Euskara eta gaztelaniazko irudi korporatiboa: Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %25 (ez da 300 eurotik gorakoa izango).

3. Web guneak

- a) Euskara hutseko web guneak: Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %50 (ez da 800 eurotik gorakoa izango).
- b) Euskara eta gaztelaniazko web guneak: Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %25 (ez da 500 eurotik gorakoa izango).

ZORTZIGARRENA.- BIDERATZEA ETA EBAZTEA

- a) Erandioko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorraren arabera (BAO, 27.zk. 2021, otsailak 10), dagokion saileko instrukzio-organoak prozeduraren instrukzioa egingo du: datuak egiaztatu eta eskaerak ebaluatu.
- b) Eskaerak ebaluatu ostean, ondorengo kideek osatutako organoak dirulaguntzak bideratzeko txostena eta ebazpen proposamena egingo ditu.
 - Batzorde burua: arloko zinegotzi-delegatua.
 - Batzorderkidea: arloko teknikaria.
 - Idazkaria: arloko administraria.
- c) Alkatetza da dirulaguntzak ebazteko aginpidea duen organoa.

Dirulaguntzaren emakidari buruzko ebazpena pertsona onuradunei jakinaraziko zaie behar bezala arrazoituta eta gehienez ere **HILABETEKO** epean, betiere eskabideak eta dokumentazioa emateko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Erandioko udalak eskubide izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publikoekin erkatzeko, beti ere deialdi honen xede den gaiari atxikita.

BEDERATZIGARRENA.- JAKINARAZPENA ETA ARGITARA EMATEA

Ebazpena emanda, pertsona edo erakunde onuradunei jakinarazi beharko zaie Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 58. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Erandioko Udalak dirulaguntzak eman ahal izateko, emakidaren azalpena eman beharko du udaleko iragarki taulan, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko du ebazpenaren laburpen bat, eduki osoa jendaurrean zein tokitan dagoen adieraziz; hori guztia udaleko euskara zerbitzuaren web-orrian ere emango da argitara.

Ebazpenaren jakinarazpena aurreikusitako epe-mugan jasotzen ez bada, onuradunek ulertu ahal izango dute beren eskabidea gaitzetsia izan dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 44. artikuluan zehaztutakoaren ondorioz.

HAMARGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

1. Dirulaguntza eman zaiola adierazten duen jakinarazpena jaso eta ondorengo hamar egun baliodunetan onuradunak ez badio beren beregi eta idatziz uko egiten dirulaguntzari, onartu egin duela ulertuko da.

Dirulaguntza emango dela jakinarazi ondoren, 10 egun igaro eta berehala, Udalak bakoitzari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du.

2. Oro har, eskaera bakoitzeko ordainketa bakarrean ordainduko da dirulaguntza.

HAMAIKAGARRENA.- BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN ELKARTZEA

Araudi honek dioenean oinarrituta emandako dirulaguntzak eta helburu berberaz beste erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoak bateragarriak izango dira, baina ezingo da jaso diruz lagundutako ekintza burutzeko aurrekontuan adierazitakoa baino diru gehiago. Hori gertatuz gero, emandako dirulaguntza gutxitzeari ekingo zaio dirulaguntza jaso duen ekintzaren kostua arte. Ekintzaren gehiegizko finantzaketa gertatuz gero eta dirua atzera itzuli behar bat baino gehiago izanez gero, Erandioko Udalak egindako ordainketa osoaren arabera dagokion diru kopurua itzuli beharko du erakunde onuradunak.

HAMABIGARRENA.- DIRULAGUNTZEN ITZULKETAK

Diru laguntzen emakida Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 62. eta 63. artikuluek jasotako baliogabetasun edo deuseztagarritasun akatsetariko batean sartzen den kasuak gorabehera, jasotako kopuruak itzuli eta legezko berandutza interesa eskatu ahal izango da honako kasu hauetan:

- a) Dirulaguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru laguntza ematen utziko ez luketen baldintzak ezkutatuz.
- b) Dirulaguntzaren emakida arrazoitzen duten xedea, jarduera, proiektua edo jokabidea zatiz edo osorik bete ez izana. Ez-betetzea zatikoa bada eta betetze osotik hurbil badago, itzuli beharreko diru kopurua ez-betetzearen neurrikoa izango da.
- c) Dirulaguntzaren erregulazio arauetan ezarritakoaren arabera, justifikazio betebeharra ez betetzea edo behar bezala ez betetzea.
- d) Finantza egiaztapen eta kontrol jardueri aurre egitea, alde batera uztea, oztopatzea edo uko egitea eta kontu betebeharrak edo agiriak gordetzeko betebeharrak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada fondoei emandako erabilera egiaztatu, ezin bada diruz lagundutako jardueren xedea, errealtatea eta maiztasuna ziurtatu edo ezin bada frogatu ea administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatuetatik (nazio mailakoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak) xede bererako emandako dirulaguntzen, laguntzen, sarreraren edo baliabideen konkurrentzia egon den ala ez
- e) Gehiegizko finantzazioa benetako kostuaren aldean; gehiegizko zati hori, beraz, itzuli behar izango da.
- f) Pertsona edo erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea edo diru laguntza ematean hartutako konpromisoak ez konplitzea, baldin eta diru laguntzaren emakida arrazoitzen duten helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua gauzatzeko edota izan beharreko jokabidea hartzeko moduari eta epeari eragiten badiete.

HAMAHIRUGARRENA.- ITZULKETA ESPEDIENTEA

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko sarrera izaera dauka; horrek berekin dakar Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua aplikagarria izatea, bai eta Erandioko Udalaren kudeaketa, diru bilketa eta ikuskapenari buruzko ordenantza ere.

Edozein kasutan ere, prozedura izapidetzean onuradunak entzuna izateko daukan eskubidea bermatuko da, bai eta bere jarduketa defendatzeko bidezko alegazioak egiteko eskubidea ere.

Itzulketa eskatzen duen ebazpena diru laguntza eman zuen organo berberak emango du; horretarako, eskaera horren justifikazioa egingo du eta itzuli beharreko kopurua zehaztuko du, bai eta sarrerarako borondatezko epea ere. Halaber, ohartaraziko du, itzulketa epe horren barruan egin ezean, premiamendu bideari ekingo zaiola.

HAMALAU GARRENA.- GASTU KONPROMISOA

Dirulaguntza zertarako eman den horretarako erabili beharko da, bestela bertan behera geratuko da. Kasu horretan, administrazioak bere kabuz hasiko du dirulaguntza bertan behera uzteko espedienteak.

HAMABOSGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA

Dirulaguntza jasotzeko eskaera-orria aurkeztean, erakunde eskatzaileak oniritzia eman eta aitortzen du deialdian eskatutako baldintzak betetzen eta termino guztiak osorik onartzen dituela.

Horrez gain, jakinarazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenpean hartu direla, eta onartu egiten duela datuok automatizatu eta Udal honek behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea. Horrez gain, baimena ematen du datuok udal kudeaketarako soilik erabiltzeko, eta beste Herri Administrazio eta Erakunde batzuei laga edo komunikatzeko, honako lege hauetan agertutako kasuetan: 1999/15 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteko; 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Interesdunek datuak ikusi, zuzendu, ezabatu eta horiei aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute; horretarako, idatzi bat aurkeztu beharko dute Erandioko Udalean.

HAMASEIGARRENA.- Era berean, deialdi honi behar besteko hedapena emateko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta euskara zerbitzuaren web orrian.

HAMAZAZPIGARRENA.- Ebazpen hau ondokoei jakinaraztea bidezko diren ondorioak izan ditzan: Ogasun sailari eta hizkuntza normalkuntzari. Era berean, Idazkaritza sailari ere jakinaraziko zaio, kontu hartu eta alkateak zein korporazioko kide eskuordetuek emandako Ebazpenen Liburuan jasota gera dadin.

Alkateak hala dekretatu eta izenpetu du.
Erandio, 2023ko martxoaren 3a.

Kontu hartu dut

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege
Dekretuaren 3.2 e) artikulua betez

Alkatea
Aitziber Oliban Gutiérrez

Behin-behineko idazkaria
Javier Basante Otegi

Sinadura digitalaren bidez izenpetua